

FRANCISCA DE ACULODI

Sariaren V Edizioa

Genero ikuspegia UPV/EHUko Gradu amaierako lanetan barne hartzearen FRANCISCA DE ACULODI Sariaren V. Edizioaren —2017/2018 ikasturtea— Artea eta Giza Zientziak jakintza adarraren epaimahaia bildu da, eta deialdi honetan honako Gradu hauetako aurkezturiko 8 lanak aztertu ondoren, epaimahaiak sariak honako bi lan hauei ematea erabaki du:

Euskaraz:

“Feminismoa eta euskal itzulpengintza. Kasu baten azterketa, frantsesetiko itzulpenetan”

Gaztelaniaz:

“Al este del Edén. El legado de Eva, el cainismo y otros temas bíblicos en la poesía de Carmen Conde y Ángela Figuera”

Deialdiaren 3. puntua betetzeko

“Epaimahaiek 2019ko otsailaren 15a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza <https://www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/2017-2018-deialdiak> web orrian, honako hauen berri emanez: irabazlearen izena, tutorearen izena eta Saila, zein Gradu eta ikastegikoa den, eta saritutako lanaren edo lanen laburpena”.

Euskaraz eginiko lanaren Irabazlea:

Irati Fernandez Arbelaitz

Itzulpengintza eta Interpretazioko gradua (Letren Fakultatea)

Tutorea: Bego Montorio Uribarren

FEMINISMOA ETA EUSKAL ITZULPENGINTZA. KASU BATEN AZTERKETA, FRANTSESETIKO ITZULPENETAN

LABURPENA:

Feminismoa geroz eta arlo gehiagotan aplikatzen da, eta itzulpengintzari ere aplikatu izan zaio. Lan honetan feminismoa eta euskal itzulpengintza lotzen saiatuko gara, bi gai horiek bil ditzaketen aztergai ugarietatik bat landuz. Erabaki dugu lan hau modu deskriptiboan eta bi zatitan egitea. Lehen zatian, itzulpen teoria feministei buruz arituko gara, lehenik orokorrean, teoria horien hastapenak aipatuz Quebec-en 1980ko hamarkadan, geroztik nola garatu diren, zenbait autore garrantzitsu aipatuko ditugu, zein izan diren haien ondorioak, zein diren proposatzen dituzten itzulpen-estrategiak, eta labur-labur aipatuko ditugu, baita ere, egin zaizkien kritikak. Ondotik, saiatuko gara islatzen teoria horiek euskal itzulpengintzan izan duten oihartzuna. Orain arte, euskaraz askorik landu ez den gaia da, eta gainera, horri buruz idatzitakoak ez daude berariaz inon jasota. Hortaz, gaiari buruz bildu ditugun testuak xeheki aipatuko ditugu lan honetan.

Bigarren zatiari dagokionez, kasu-azterketa bat egingo dugu. Feminismoa eta euskal itzulpengintza gaiak barne hartzen dituen adibide bat aztertuko dugu: 2017an argitaratutako saiakera feminista baten itzulpena, hain zuzen ere. Jatorrizko liburua Virginie Despentes feminista frantsesarena da, *King Kong Théorie* izena du, eta 2006an argitaratu zen. Euskarazko itzulpena, berriz, *King Kong Teoria*, 2017koa da. Eskafandra bilduma feministaren barnean argitaratu zen (Jakin eta Elkar), eta Itziar Diez de Ultzurrunek itzuli zuen. Saiakerak oihartzun handia izan du gurean, eta hori izan da hautatzearen arrazoia bat. Gure xedea da 2017ko argitalpen hori bere osotasunean aztertzea. Lehenik, itzulpenaren testuingurua eta aurretikoak aztertuko ditugu, eta ikusiko dugu azken bi urteetan egitasmo berriak loratu direla euskal argitaletxeen munduan saiakera feministak argitaratzeko nahiarekin. Bestalde, Itziar Diez de Ultzurrun itzultzaileak gaiarekin duen lotura ere aipatuko dugu. Ondotik, itzulpenprozesuan murgilduko gara, eta itzultzaileak izandako zailtasunak eta erronkak aipatuko ditugu, baita itzultzerakoan egin zituen hautuak ere, tartean saiakerako kapituluaren izenburuak, erreferentziak, Despentesen estiloa... Azkenik, itzulpen horrek izandako harrerari buruzko zenbait zertzelada emango ditugu, tartean prentsan agertu diren kritikak, irakurle-taldeetan izan duen eragina, edota liburuarekin lotuta antolatutako diren ekimenak.

Gaztelaniaz eginiko lanaren irabazlea:

Oier Quincoces Blas

Filologiako gradua (Letren Fakultatea)

Tutorea: Juan José Lanz Rivera

AL ESTE DEL EDÉN. EL LEGADO DE EVA, EL CAINISMO Y OTROS TEMAS BÍBLICOS EN LA POESÍA DE CARMEN CONDE Y ÁNGELA FIGUERA

LABURPENA:

El presente trabajo pretende ser un acercamiento a dos autoras de la posguerra española cuya poesía suele estudiarse en un segundo plano: Carmen Conde (1907-1996) y Ángela Figuera (1902-1984). No obstante, su labor poética ha sido fundamental para la creación de una tradición literaria femenina sobre la que pudieran apoyarse autoras coetáneas y posteriores. El magisterio que *Mujer sin Edén* (1947) de Conde y la poesía social de Figuera ejercieron durante la dictadura es incuestionable.

Asimismo, estas obras forman parte de una tendencia literaria que se agudizó tras la guerra civil: la subversión del lenguaje bíblico. Mientras que para la mayoría de los autores de esta época las referencias a mitos bíblicos se limitaban a acentuar su exilio, tanto interno como externo, y la sensación de pérdida del Paraíso que les había dejado la guerra, estas autoras incorporaron la perspectiva femenina que durante tanto tiempo había sido invisibilizada. De este modo, lo que nos ofrece *Mujer sin Edén* no es una evocación nostálgica del primer Jardín, sino una reelaboración del mito de la creación, un cuestionamiento del pecado original y un ataque a los cimientos del patriarcado occidental. A través de la figura de Eva, en constante diálogo con un Dios impasible, se pretende dar respuesta a toda esa opresión injustificada sufrida por las mujeres por el mero hecho de serlo. También supone, a su vez, un nuevo enfoque del tema cainita, en boga tras la guerra, desde la maternidad: el conflicto fratricida como un enfrentamiento entre hijos paridos para la muerte. La poesía social de Ángela Figuera, por su parte, que nos ha dejado títulos como *Vencida por el ángel* (1950), *El grito inútil* (1952) o *Belleza cruel* (1958), haría las veces de una intrahistoria narrada por la mujer. Estamos, pues, ante una poesía que no solo responde a unas circunstancias sociopolíticas adversas, sino que también reivindica la búsqueda de una identidad femenina propia que les ha sido vetada a las mujeres a lo largo de la Historia.